

AIARALDEA

hemen



Harro Aiaraldeia!

Erreportajea



Korrikaren lekukoak, helmugara iristeko duen bide luzean, bidelagun geldiezin ditu inguruan bueltaka dituen AEK-ren furgonetak. Furgoneta hauen barruan Euskal Herria zeharkatu duten Aiaraldeko zenbait kiderekin elkartu gara, Korrikaren tripetako kontuak ezagutzeko.



Testua
**Almar
Gutierrez Bidarte**

Eskuz esku, metroak eta kilometroak elkar-lotuz, Euskal Herriko bazter guztiak gurutzatze-ko lanetan da une honetan bertan Korrikaren lekukoa. Magia dirudi, baina antolakuntza da, AEK-k 23 ediziotan handitzen eta fintzen joan den makineria erraldoia. Korrikaren funtzionamendua bermatzen duten engranaje ezagunenetako bat dira lekukoaren zaindari bidaiatzen duten furgonetak, hamaika egunez gelditu gabe milaka kilometro ibiltzeko gai direnak.

Furgoneten barruan gertatzen dena hobeto ulertu nahian, Korrikako tripetan lanena buru-belarri aritu diren eskualdeko zenbait kide elkartu ditugu Faktorian: Koldo Zabala, Irune Barrenengoa, Izar Mendiguren eta An-

gela Rico. Horiek eta beste asko urte luzez Korrikaren arrakastaren berme izan dira, eta furgoneta barruko hainbat sekretu argitu dizkigute.

Noiz eta zergatik?

Abentura zirrargarria da Korrikarekin batera hamaika egunez Euskal Herria zeharkatzea. Baina noiz ekin zion Faktorian elkartutako laukoteak hain modu aktiboan lasterketan parte hartzeari?

Irune Barrenengoa Korrikaren 10. edizioan hasi zen parte hartzeari. Euskaltegian irakasle lanetan zebilen, eta aurretik furgoneta aritutako Ane Moreno okondoarrak luzatu zion gonbita: "Hasieran ez nekien oso ondo zertan zetzan. Abentura eta pribilegio polita iruditu zitzaidan. Asko pentsatu gabe baietz esan nuen eta kristolako esperientzia izan zen". Bertan ezagututako

lagunak eta Korrikan parte hartzen zuten guztien poza ikustea dira gehien oroitzen dituen kontuak.

Koldo Zabalak Iruneri hartu zion lekukoa, mende hasierarekin batera. Zabalak 2001eko 13. Korrikan parte hartu zuen furgonetako lanetan: "Irunek eta Anek furgonetero izatearen esperientziak hitz egitean transmititzen zuten magiak erakarritza hartu nien lekukoa". Gauzak horrela, Euskal Herria alderikalde Korrikaren furgoneta gainetik ezagutzeari ekin zion Zabalak.

Angela Ricok 2017ko 20. Korrikan parte hartu zuen "furgonetero" lanetan. "Nik gutxien espero nuen unean Bilbotik deitu ninduten pertsona bat behar zutela esateko, emozioak baietz esatera eraman ninduen zuzenean"

Koldok Iruneri lekukoa hartu zion modu berean, Angelaren tokia hartu zuen Izar Mendiguren



**Izar
Mendiguren**

"Auzolanak eta AEKren balioek bultzatuta batu nintzen furgoneteroen taldera"

nek furgoneta, Korrikaren 21. edizioan. Aurten ere, hirugarrenekoz, lekukoa laguntzen arituko da lasterketak irau bitarteko 2.797 kilometroetan. "Auzolanak eta AEKren balioek bultzatuta batu nintzen furgoneteroen taldera".

Furgoneteroen funtzioak

Gauza askoren gaineko ardurara dute haien gain Korrikako furgoneteroek, baina Koldo Zabalak honakoa azpimarratu du: "Lehenengo funtzioa, edo berebizikoa dena behintzat, lekukoa beti begi-bistan izatea da". Horrekin batera, zenbait herri eta hiriguneetan mugitzen diren jende multzo handiak kontrolatzeko lana dauka AEK-ko boluntario talde honek, eta, nola ez, Korrika helmugara zehaztutako orduan iristen dela bermatzea ere. "Kilometroak kontrolatzearen ardura daramagu furgoneta —azaldu

Erreportajea

du Iruene Barrenengoak—, ordu zehatzean toki zehatzetik pasako dela bermatuz. Gauean beti erritmoa igotzen genuen, hirigune edota herri handietan moteldu ahal izateko”.

Logistika erraldoia

Korrikaren makinaria guztia behin martxan jarrita, ez dago hori gelditzerik. Antolakuntza sare erraldoi batek mantentzen du Korrika kilometroz kilometro, eta furgonetetatik bermatzen da guztiak behar bezala funtzionatzen duela. “Sekulako logistika dago Korrikan. Atzetik eta aurretik dauden furgonetez aparte, komunikazioko bi kotxe goaz. Hirugarren furgoneta bat dago beti erreserban, uneoro bi furgoneta martxan eta aktibo daudela bermatzeko —aletu du Izar Mendigurenek antolakuntzaren inguruan galdetuta—. Karabana guztiaren atzean AEK-ko beteranoen azken furgoneta bat dago, mantenu lanez arduratzen dena”.

Furgonetetako kideak hamar pertsonako bi taldetan banatzen direla azaldu du Angela Ricok, eta talde bakoitzak hamalau orduko txandak egiten ditu. “Lanak banatzea da hamalau orduko txanda hasterakoan egiten den lehenengo gauza: gidaria, kopilotua, mikrofonoa... Guk lan guzti horiek trukatu egiten genituen monotonoa izan ez zedin”.

Baina guztia ez da furgonetetatik egiten den lana. “Korrika furgoneta multzo hori baino askoz gehiago da; Korrikaren zain dauden euskaltzaleak, antolatzen diren Korrika Kulturalak... 360 graduko prespektiba batean jende asko eta eragile asko biltzen dira”, nabarmendu du Izar Mendigurenek. Ideia berdinarekin bat datoz Iruene, Angela eta Koldo ere. “Izugarrizko lana egiten da herrietan. Korrika igaro aurretik makina bat kontu antolatzen dira, eta Korrikak iraun bitartean beti dago sorpresaren bat”.



Iruene Barrenengoa

“Kilometroak kontrolatzearen ardura daramagu furgonetan, ordu zehatzean toki zehatzetik pasako dela bermatuz”



Koldo Zabala

“Korrika beti ateratzen da aurrera; AEKren konpromisoa da mezua hasieratik bukaerara iristea”

Gauza guztien gainera, Korrikaren arrakastaren osagai nagusia AEK-ko kideen konpromisoa dela aldarrikatu dute lau furgoneteroek: “Korrika beti ateratzen da aurrera. AEKren konpromisoa da mezua hasieratik bukaerara iristea”.

Furgonetaren barrunbeak

Furgonetetara itzuliz, euskararen espazio-ontziak barrutik nolakoak diren galdetu diegu lau gonbidatuei. Urtez urte eta edizioz edizio hobetuz eta perfektionatuz joan dira. Gaur egun soinu ekipoa, bideoak zuzenean errealizatzeko tresneria eta komuna daukate integratuta, besteak beste. Erregaia hornitzeko sistema berezia ere dute integratuta, eta, horrekin batera, erregaia noiz eta non behar duten kilometroz kilometro kalkulatu. “Bi urte ematen dituzte AEKn hurrengo edizioa prestatzen, dena dago pentsatuta”.

Baina dena ez da erosotasuna, estutasun uneak ere badaude ha maika egun luze hauetan. Furgonetatik igo eta jaistea bera praktika handia behar duen “arte”



Agela Rico

“Lanak banatzea da hamalau orduko txanda hasterakoan egiten den lehenengo gauza: gidaria, kopilotua, mikrofonoa...”

bat dela azaldu digute: “Korrika Otxandiotik abiatu behar zen egunean goizeko 3:00etan itzartu gintuzten, furgonetara nola igo eta bertatik nola jaitsi ikasteko” gogoratu du Angelak.

Badira ere furgonetak kabitu ezin diren kale estuak, txalupan gurutzatu beharreko itsasadarak, errepide itxiak, istripuak... “Une horietan guztietan tentsioak gora egiten du”. Estualdiak estualdi, zoriontasuna beti gailentzen da: “Estualdi horiek ere irudi ederrak uzten dituzte. Aurreko Korrikan bi egun pasa genituen elur artean, jendeak furgoneta bultzatzen zuen bitartean. Emozioz bizi dira une horiek; momenturik kaotikoen ere jendearen bermea izango duzula jakitea izugarria da”.

Herriarren berme horri esker martxoaren 24ra bitarte, egunez edo gauez, egiten ari garela egiten ari garela, Euskal Herriko txokoren batean zoro zoragarri batzuk korrika arituko dira, lekukoa eskuz esku luzatuz, etenik gabe, eta tartean, nola ez, gure furgoneteroak, euskararen espazio-ontzietan.



AMAURRE
IKASTETXEA · BIDAIDE FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA

Artziniega

Aiaraldea Euskal Herriko periferian kokatuta badago, Artziniega bada periferiako azken muturrean dagoen udalerria, Baina horrek bere alde egiten du Korrikan, zubi lanak betetzen baititu hainbat muga hurbil dituen eremuan,

Bizkaia, Araba, Burgos edota ideia anitzeko herritarrak lotuta. Aurten, gainera, AEKren furgoneta eta horren atzetik datorren lekukoa handik barneratuko dira eskualdean, lekukoari alfonbra gorria jarrita.

Korrika Artziniegan: lurraldeak, ideak eta herritarrak lotzen



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aintzat hartuta aurten Korrika ez dela Campijotik igaroko eta, hortaz, Txabeli Villanuevak ezingo duela urtero prestatzen duen mokadua eskaini —2017an herritarrek horregatik omendu zuten—, 2024ko edizioan Artziniégako izaera mugalarian zentratu beharko gara: Enkarterri alboan, baina Aiaraldekoko %100ean, Bizkaia Gasteiz baino nabarmen hurbilago izanda eta Burgoseko bizi-lagunak gertu izanik. Periferiaren periferian egonda, 2019an artziniégarrek bere kasara ospatu zuten Korrika apirilaren 11n, aurreko egunean Aiaraldekoko herri gehienetatik igaro ondoren.

2022an, ordea, Amurriotik abiatu ostean, Artziniégatik utzi zuen eskualdea Korrikak, gero Okondotik berriro agertzeko. Duela bi urteko hitzorduak, gainera, eginkizun berezia eman zien Artziniégako herritarrei, Burgoseko kilometro apur batzuetan eraman bai-

tzuten lekukoa, euskara bere muga administratiboetatik harago zabaldua. Luxu hori artziniégarrei dagokie, baita lurralde historikoen artean mugitzea ere, mugarik muga salto eginda eta maiz aldapa gora eta behera.

Zentralitatetik kanpo egonda, irudi bitxiak utzi dituzte Artziniégako biztanleek. Horietako bat 2017an gertatu zen; batzuentzat magikoa izan zen eta besteentzat ia fikzioa. Edizio horretan bi Josebek hartu zuten lekukoa aldi berean, bat Joseba Vivanco zen, EH Bilduko zinegotzia garai horretan eta egun herriko alkatea bigarren aldiz; beste eskua Joseba Elejalderen PPko zinegotziaren eta Aiarako Alderdi Popularreko presidentearena. Elejaldek, hori bai, hurrengo urtean eragin zuen udal gobernu taldeak Aiaraldea Hedabidearekin Udalak zuen hitzarmena bertan behera uztea aurrekontuak onartzearen truke, baina ez esan ez zela zirrargarria pentsatzea segundo batzuetan bera ere batu zela euskararen aldeko aldarria!



KORRIKA AGENDA

03.22 Ostirala

07:00
TXOKOLATE JANA
Korrika igaro ostean
Toñin Luengas Frontoia



03.22 Ostirala

18:00
KALEAN OTSO ETXEAN USO
Patata Tropikala
kompainiaren antzerkia
Toñin Luengas Frontoia



06:23 | 2019. Km
Bizkaia-Araba muga

Lekuko eramaileak:
BUILAKA

06:29 | 2020. Km
Clariant enpresa aurrean (200m)

Lekuko eramaileak:
ARTZINIÉGAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

06:36 | 2021. Km
Barretaguren, 12 (Lucart enpresa)

Lekuko eramaileak:
OTSATI ELKARTEA

07:02 | 2025. Km
Pataratxe erdian
Lekuko eramaileak:
GANZORROTZ MENDI TALDEA

06:49 | 2023. Km
Erdiko kalea behealdea

Lekuko eramaileak:
ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA / ARTZINIÉGAKO UDALA / BEL EDAD EGOITZA

06:55 | 2024. Km
Garai hiribidea, 15


Lekuko eramaileak:
ARTZINIÉGAKO EH BILDU UDAL TALDEA

07:08 | 2026. Km
Pataratxetik behera

Lekuko eramaileak:
GARABILLA LANDETXEA

06:42 | 2022. Km
Artziniégako sarrera, errotonda pasata

Lekuko eramaileak:
ARTZINIÉGA MUSEOA / ARTZINIÉGAKO PARROKIA



Artziniega



Miren Lopez

ARTZINIEGAKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA

Dakigunez, korrikaren helburua euskara bultzatzea da, hizkuntza batek merezi duen garrantziarekin ezagutaraztea. Gurea den hizkuntza da, zori-tzarrez desagertzeko zorian egon dena.

1980tik gaur arte, asko dira parte hartu zutenak eta abentura txiki honetan parte hartzen jarraitzen dugunak, euskarak hazten jarrai dezan eta gero eta biziago egon dadin. "Belarri gor asko" egon arren, hizkuntza hori oso lurralde txikira mugatuta dagoenez, ez dute benetan duen balioa ematen. Gauza bera gertatzen da hizkuntza txiki horiek duten aberastasun kulturala aitortzen ez zaien munduko hizkuntza gutxitu guztiekin.

23. Korrikara itzuliz, bertan parte hartzen dugunok 80ko Korrikaren ilusio berarekin egiten dugu, euskara gero eta hizkuntza mintzatuagoa, erabiliagoa eta mundu mailan aitortuagoa izango delakoan. Alderdi erromantikotik haratago, gusatuko litzaidake euskara erakunde autonomiko, nazional eta internazional guztietan funtzionatzen ikustea, nahiz eta jakin egin beharreko bidea oso luzea dela oraindik.

Pentsatu nahi nuke egin beharreko bide hori amaierara iristen ari dela, bi urtean behin korrika egitera eta, hala gertatuz gero, barregarri uztera irten beharrik ez izateko.

Horrek esan nahiko luke luzaroan euskararen alde lan egin duten pertsona guztiek azkenean harrotasunez lortu dutela munduko txoko batean denok kultura propioarekin lotzen gaituen sentimenduaren azken helburua. Bitartean, errepidean korrika ikusiko dugu elkar.

**Jarrai dezagun
Korrikaren
abenturan, euskara
biziago egon dadin!**



AYUNTAMIENTO
ARTZINIEGA
UDALA

2011



Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari lelopean Trebiñutik Donostiara egin zuen bidea Korrikaren 17. edizioak, eta Artziniegan ere utzi zuen arrastoa

2017



Otxandiotik Iruñerako lasterketan Artzinieगतik igarozten 20. Korrika, eta bidean Burgoseko errepideak ere zapaldu zituen

2022



Korrikaren azken edizioak lehenengo egunean bisitatu zuen Artziniega, eta jendetza elkartu zen hiribilduko kale estuetan

Aiara

Martxoaren 22an goizean goiz igaroko da Korrikaren 23. edizioa Aiarako errepide nagusietatik. lantenotik sartu eta Izoriatik alde egingo du lasterketak, baina euskararen aldeko ekimenek indartsu jarraituko dute udalerrian. Izan ere, asko dira urte osoan zehar hizkuntzaren alde antolatuta dauden herritarrak.

Aiara alderik alde zeharkatuko du Korrikak



Testua
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

Artziniegari lekukoa hartuta, Korrika goiztiarra izango da aurtengoa Aiaran. Aurreikuspenen arabera, goizeko 7:15ean emango du euskararen aldeko lasterketak lehenengo urratsa udalerrian.

Udalerriko errepide nagusia zeharkatuko du Lantenotik Izoriaraino. Bidean ehunka aiarrek egingo diote ongi etorria, baina baita beste udalerrietatik

etorritako euskaltzaleek ere. Izan ere, Amurrioko eragile askok kilometroak dituzte bertan.

Aiaraldea Ekintzen Faktoria Izorian, Korrikaren 2036. kilometroan Aiaraldea Ekintzen Faktoria hartuko du mezu ezkutua gordeta daraman lekukoa. Faktoriatik kooperatibako bazkide eta lagunei luzatu die te gonbita kilometroan guztiak batera aparte hartzeko.

Etxaurren Ikastola

Etxaurren Ikastolako gura-

so eta irakasleek ekimen erraldoia antolatu dute Korrikari ganorazko agurra egiteko. Hiruhun ikasle baino gehiago Ibagueneko zentrotik Lauiaondoko frontoira joango dira autobusetan, eta bertan itxarongo dute lasterketa, jolasak eta ekintzak egin bitartean. Korrika 11:00etan igaroko da Lauiaondotik eta une horretan errepide-
ra batuko da Aiarako ikasleen olatu erraldoia. Lekukoa atzean utzi ostean, jolasekin, zumbarekin eta txokolate janarekin amaituko dute egitaraua.



07:15 | 2027. Km
Lanteno errepideko zubia
Lekuko eramaileak:
IBAIZABAL GAZTETXEA

07:21 | 2028. Km
Menagaraiko errepide zaharra
Lekuko eramaileak:
ADIGRAFIK

07:34 | 2030. Km
Menagarai irteera behetik
Lekuko eramaileak:
MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA

07:47 | 2032. Km
Kexaara sarrera (150m)
Lekuko eramaileak:
MENDIKO LAGUNAK MT

08:20 | 2037. Km
Belandiara bidea
Lekuko eramaileak:
**ETORKI KOOPERATIBA/
TXOKOGORRI**

07:28 | 2029. Km
Menagaraiko errepide zaharra
Lekuko eramaileak:
AMURRIOKO EAJ - PNV

07:41 | 2031. Km
Etxaurren Ikastola
Lekuko eramaileak:
**AMURRIOKO GAZTE
MUGIMENDUA/ AIARAKO
EHBILDU**

07:54 | 2033. Km
Arespalditza (Batzoki parean)
Lekuko eramaileak:
**ARESPALDITZAKO
ADMINISTRATIO BATZORDEA**

08:00 | 2034. Km
Arespalditza (Aldapa erdian, sarrera ezkerretara)
Lekuko eramaileak:
AIARAKO CACERES FARMAZIA

08:07 | 2035. Km
Izoriako sarrera
Lekuko eramaileak:
IZORIA HERRIA

08:13 | 2036. Km
Izoria pasata
Lekuko eramaileak:
**AIARALDEA EKINTZEN
FAKTORIA**



Pruden Otegi AIARAKO ALKATEA

Euskararen aldeko bultzada zoragarri horren zain! Furgoneta koloretsu horiek abian jarri eta lekukoak bidea hartuko duenean, jai hunkigarri bat abiatuko da euskaldun guztientzat Irunen, 2.000 kilometro baino gehiagoko ibilbidea osatuz; hamaika egun eta hamar gau Baionan izango duen ohiko bukaera kolosalera heldu arte. Korrika berri baten atarian, orotzapan gozoenak pilatzen dira, euskararen aldeko bultzada kolektiboek izaten duten indarrari lotuta. Furgoneta horiek agetzen diren uneetan sentimendu ugari nahasten dira, zirrarra, urduritasuna... eta harrotasuna, gurea bezalako herri txiki baten ahalegin handi horren aurrean.

Euskararen aldeko lasterketa zoragarri hori hasi aurretik, Euskal Herritik kanpo, erreplikak izan ditu dagoeneko, Bruselan, Madrilan... eta Aiara, haren zain gaude, euskaraz bizitzeko nahiari eta beharrari gure oinkadak gehitzeko prest, euskararen erabilera elkarrekin indartu eta ospatzeko.

Ostegunetik aurrera, hamaika egunetan zehar, aldapa gora, elurretan bultzaka edo Lautadako goizalde hotzetan, "hemen gaude euskararen alde" oihu eginez bide egiteari utziko ez dioten korrikalari guzti horiek izango ditugu gogoan.

Eta apirilaren 22an aiarron txanda helduko da. Zapatillak eta petoa jantzi, bide bazterrean joan eta ez utzi aukera pasatzen utzi. Bakoitzak bere neurrian, kilometro bat, ehun metro egin edo bide bazterrean, animatzen egoteak indar handia du euskararen aldeko ahalegin kolektibo horretan. Adi! Lanteno, Arespalditza, Izoria, Urduña eta berriz Aiara, Luiaondon... Ez galdu, batu Korrikara, harro herri!

**Tipi-tapa, pausoz
pauso Aiara aldean
euskara hedatu**



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

2015



Urepeletik Bilbora egin zuen Korrikak 19. edizioan, eta gauzez zeharkatu zituen Aiara errepideak. Durangoko Azoka izan zen omendua

2019



Garesen hasi zen Korrikaren 21. edizioa. Aiara egunsentiarekin batera sartu zen lasterketa. Maialen Lujanbiok idatzi zuen lekukoaren barruan gordetako mezua

2022



Amurriok luzatu zion lekukoa Aiara Korrikaren 23. edizioan. European abiatu zen lasterketak giro oskarbia aurkitu zuen Aiara errepideak zeharkatzean

Urduña

Euskararen kale erabileran gorazko joera izan du hiriak, eta bide horretan urratsak ematen jarraitzeko aukera izango du urduñarrek martxoaren 22ko zitan. 13 kilometro egingo ditu lekukoak hirian barrena,

eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren kilometroa hartuko du bere gain, besteak beste. Aurretik udalerriko herri txietatik igaroko da; Belandia eta Lendoñobeititik.

“Harro hiri” izateko motiboak ditu Urduñak



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dena ondo bidean, 8:26ak aldera sartuko da Korrika Urduñan. Antiguatik jaitsiko da, Belandia eta Lendoñobeitik igaroko osten. Protokolozko itzulia egingo du alde zaharrean barrena, Saratxora abiatu baino lehen. Guztira, 13 kilometro egingo ditu furgonetak Bizkaiako hiri bakarrean barrena, eta bertako elkarte eta eragile ugari hartuko dute lekukoak. Hala ere, eskualde mailako hainbat eragile ere hartu dute kilometroa hiriko mugen barruan.

Horietako bat da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua. 2043. kilometroa hartuko du, Lendoñobeitin, 8:59ak aldera, eta herritar orori luzatu diete bertan “euskaraktibatzera”.

2019an bisitatu zuen Korrikak azkeneko hiria, baina euskararen normalizazioaren

aldeko borroka ez du etenik izan ordutik hona. Eta, beste toki batzuetako datu ezkorren aurrean, Urduñan behintzat badirudi pozik egoteko motiboak daudela.

Euskararen kale erabilera puntu eta erdi igo zen 2011tik 2021, %4tik %5,5era igaroz. Oso hobekuntza xumea da, bai, baina dimentsio handiagoa hartzen du perspektiba historikotik begiratzen bazaio. Izan ere, 2002an eginiko neurketa ehuneko hori 0koa izan zen. Hau da, ez zen kaletik euskaraz hitz egiten zuen inor topatu.

Horri gehitu behar zaio euskaldunen ehuneko Urduñan ez dela Aiaraldeko beste udalerririk bezain handia. %31,34koa zen 2021ean, baina kopuru horrek oreka handia mantentzen du erabilera datuekin, kale erabilera %5,8koa izan beharko litzatekeela baitio erabilera isotropikoaren formula matematikoak.

- 08:26 | 2038. Km (Belandia, errota pasata 100m)
Lekuko eramaileak: AMURRIO TRAIL/ SAN ANTONEN LAGUNAK K. E.
- 08:33 | 2039. Km (Medio Bizkar auzoa)
Lekuko eramaileak: OINKARIAK/ EZINA EKINEZ EGINA
- 08:39 | 2040. Km (Belandia pasata)
Lekuko eramaileak: EURITAKO TALDEA
- 08:46 | 2041. Km (Garbitxikira 50m)
Lekuko eramaileak: TOLOGORRIKO MERMELADAK ETA ZUKUAK
- 08:52 | 2042. Km (Lendoñobeitira aldapa erdian)
Lekuko eramaileak: LAB AIARALDEA
- 08:59 | 2043. Km (Lendoñobeititik aldapan gora)
Lekuko eramaileak: AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA
- 09:05 | 2044. Km (Lendoño Goihora eks.)
Lekuko eramaileak: TXARLAZO MENDI TALDEA/ URDUÑAKO GAZTE ASANBLADA
- 09:12 | 2045. Km (Urduñako aterpetxea)
Lekuko eramaileak: MUGALDE/ URDUÑAKO PILOTAZALE ELKARTEA


09:18 | 2046. Km
Antigua eliza (Bihurgune itxia)
Lekuko eramaileak: AINTZINAKO ANDRA MARI

09:25 | 2047. Km
Antigua ibilbidea, 9
Lekuko eramaileak: URDUÑAKO HERRI ESKOLA/ URDUÑAKO LAGUNTZA ZENTROA

09:44 | 2050. Km
La Muera
Lekuko eramaileak: AMURRIOKO EH BILDU/ SARATXO HERRIA

09:38 | 2049. Km
Urduña-Bilbo errepeidea
Lekuko eramaileak: ERAUNTSI DANTZA TALDEA/ URDUÑAKO EH BILDU

09:31 | 2048. Km
Burgos kalea (sarreran)
Lekuko eramaileak: URDUÑAKO UDALA/ URDUÑA HIRI MUSEOA



Urduña



Naiara Merino
Saenz de Lafuente

**AIARALDEKO EUSKALGINTZA
KONTSEILUKO
LEHENDAKARIA**


Nola neurtu dezakegu herri baten aberastasuna? Ohi-koak dira datu ekonomikoetan edo estatistikoetan oinarritzen diren diagnosi kuantitatiboak; baina, neurketa horietatik guztietatik kanpo geratzen da beti gure herriaren benetako potentzia: ondare kulturala.

Lehenik eta behin, beldurrik gabe baieztatu dezakegu euskal kultura bizirik dagoen memoria dela, eta gure sena markatzen duen erro bakarra euskara dela. Euskara baita euskaldun egiten gaituena. Guk guztiok, euskaldunok eta euskaltzaleok, makina bat abentura lotzen dizkiogu Korrikaren etorrerari. Are gehiago, Korrikak bi urterik behin aukera paregabea ematen digu euskara gertutik sentitzeko, bizitzeko eta dastatzeko. Zalantzarik gabe, Korrika herriaren babesarekin sortutako ekimen arrakastatsua eta eraginkorra izan da.

Hain momentukoa eta aldakorra den gizarte honetan, eraginkorra izateari ez ote dion utziko galdetzen diot neure buruari. Izan ere, Korrikatik eta haratagoko konpromisoak hartzeko gai ez bagara, potentzia hori guztia anekdota bilakatzeko arrisku bizian gaudela uste dut.

Gauzak horrela, herritarrok kontsumitzaile hutsak izateari utzi eta eragile bilakatzeko beharrea gaude. Ezinbestean, aurten ere martxoaren 22an goizeko 8:26an Belandiatik sartu, eta Urduña zeharkatuko duen Korrikarekin bat egin behar dugu. Baina, izan ditzagun bihotzean eta buruan hurrengo ediziora arte geratzen diren 730 egunak. Egun luze horiek izango baitira gure etorkizuna eta gure benetako potentzia markatuko dutenak.

**Urduñan ere, harro
garenaz eta dugunaz.
Urduña ere, HARRO-HERRI.**



Korrikaren 3. edizioa ospatu zen Baionatik Bilbora, Euskaraz eta kitto! lemapean. Urduñara Barrerilla mendatetik iritsi zen lasterketa, eta bertan egin zioten harrera herritarrek.

1983



Korrikaren 5. edizioan ere Bilbo izan zuen helmuga lekukoak, eta, bertara bidean, jende uholde batek egin zion harrera Urduñan

1987



5. edizioan bezala, 6.ean ere jendetza atera zen hiriko kaleetara euskararen alde korrika egitera, tartean ikastetxeko ehunka ikasle

1989

Amurrio

Duela bi urte Korrikaren 0. kilometroa egin zuten Amurrion. Aurten, ordea, lasterketa Irundik abiatu osteko 2.051. kilometroan helduko diote amurriotarrek euskararen lekukoari. Martxoaren 22an, 9:51ean, Saratxotik sartuko

da lasterketa herrira. Amurrioko ikasleek Korrika-Txikia ospatuko dute egun horretan eta festa egongo da Juan Urrutia Plazan. Martxoaren 24rako autobusa antolatu du Udalak, Baionan Korrikaren amaieraz gozatzeko.

Korrikaren lekukoa berriro eusteko irrikaz daude Amurrion



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Duela bi urte Korrikarren 22. edizioaren protagonista nagusietako bat izan zen udalerrria, bertatik abiatu baitzen euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Amurrioko AEK euskaltegiko kideek nekez ahaztuko dute egun hura: 2022ko martxoaren 31. Neguko eguraldia nagusi eta euri-jasa erraldoiaren azpian, Juan Urrutia Plazan eman zituen Korrikak lehenengo urratsak. Hain zuzen ere, euskaltegiko irakasleek izan zuten lehenengo metro horietan lekukoa eusteko ardura, irribarrea ahotan eta malkoei

ezin utsirik. Egun historiko horren oroigarri, bi urtez egon da Korrikaren lekuko erraldoia udaletxeko atarian. Orain, Korrikaren edizio berria hastear dela, lekukoa Irungo hiriari luzatu dio Amurrio. Aurten Gipuzkoako udalerriri dagokio Amurriok duela bi urte bizi izan zuena bizitzea.

Korrikaren bidean

Aurten 0. kilometroan ez eta 2.051. kilometroan batuko da Amurrio euskararen aldeko ekimen erraldoiera. Martxoaren 22an Saratxotik sartuko da lasterketa udalerrira, aurreikuspenen arabera 9:51etan. Lehenengo kilometro hori Gure Esku Dago eta Nagusilaneko ki-

deek elkarbanatuko dute. Guztira hamar kilometro egingo ditu herriko kale eta errepideetan barrena, lekukoa Luiaondoko bizilagunei luzatu aurretik.

Korrikak atzean utziko du Amurrio, baina euskararen festak herrian jarraituko du egun guztian. Eguerdian Korrika Txikia antolatu dute Amurrioko ikastetxeek. Aresketa Ikastolatik abiatuko da 15:15ean, eta orubete beranduago Juan Urrutia Plazan izango du helmuga. Bertan Diskorrika haurrentzako ikuskizuna eta txokolate jana eskainiko dituzte.

Martxoaren 24an, aldiz, autobusa antolatu dute Baionako Korrika amaiera festara joateko.

KORRIKA AGENDA

03.18 Astelehena

17:30
BERMUTA ETA LIKOREEI BURUZKO IKASTAROA ETA DASTAKETA
Licores Atxa

03.19 Asteartea

10:30
PETOTIK POLTSARA Casilda Marañonen eskutik
Kultur Etxea



03.22 Ostirala


15:15
KORRIKA TXIKIA Aresketa Ikastolatik abiatuta
Herrian zehar

03.22 Ostirala

16:15
DISKORRIKA Haurrentzako ikuskizuna eta txokolate jana
Juan Urrutia Plaza

03.22 Ostirala

08:15
BAIONARA JOATEKO AUTOBUSA
Telefonika



Amurrio



Txerra Molinuevo AMURRIOKO ALKATEA

Badator beste urte batean euskararen aldeko "klika" egiteko unea. Datorren martxoaren 22an goizeko 10:10etik aurrera amurriotar guztiok ongietorria emango diogu Korrikari.

Korrika ez da bakarrik errepide eta bideetako hainbat kilometro egiten dituen errelebo lasterketa. Komunitate gisa dugun indarraren adierazpen kolektiboa da, gure hizkuntzak eta kulturak une oro defendatzea eta sustatzea merezi dutela gogorarazten duena.

Amurriotik, Korrikaren botere eraldatzailearen lekuko izan gara. Ikusi dugu adin eta jatorri guztietako pertsonak bat egiten dutela helburu berarekin: herri euskaldun gisa dugun nortasuna indartzea. Lasterketa honetan ematen den urrats bakoitzarekin euskalduntzearen grian nola pizten den ikusi dugu.

Baina Korrika ez da dibertsioa bakarrik, konpromisoa ere bada. Lasterketaren edizio bakoitzak elkarrekin lan egiten jarraitzea garrantzitsua dela gogorarazten digu, euskal herri gisa dugun nortasuna zaintzeko eta sustatzeko. Horregatik, jaiaz gain, gutako bakoitzak zeregin horretan izan dezakeen paperaz hausnartzeko aukera paregabea da Korrika.

**Hartu euskararen
lekukoa!**



2022



1982



Egan taldeak osatutako abestiaren erritmora sartu zen Korrikaren 2. edizioa Amurrion. Rikardo Arregik idatzi zuen edizio horretako mezua

1983



Korrikaren 3. edizioa, lehenengo edizioan egin bezala, abenduan antolatu zuen AEK-k. Gabriel Aresti izan zen urte hartako omendua eta Akelarre taldeak egin zuen abestia

2022



▲ Zirriaraz eta pozez beteriko eguna izan zen 2022ko martxoaren 31. Korrikaren 22. edizioak Amurrio izan zuen abiapuntu.

◀ Euriteak eta neguko eguraldiak ez zituzten Juan Urrutia Plazan elkartutako milaka lagunengan animoak

Laudio

Hitzordu bikoitza izango dute audioarrek datorren martxoaren 22an. Korrikaren 23. edizioak Laudioko kaleak zeharkatuko dituen egun berean Dolumin Barikua ospatuko dute. Ez da bi ekimenek bat egiten duten

lehenengo urtea, eta, aurreko edizioetan bezala, aurtengoak ere marka guztiak hautsiko dituela aurreikusi dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute Udalak eta eragile desberdinek, festa giroa ahalik eta gehien zukutzeko.

Dolumin Barikuarekin egingo du bat Korrikaren 23. edizioak



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Korrikak eta Dolumin Barikuak bat egingo dute aurten berriro ere. Azkenekoz 2017ko edizioan kointziditu zuten Laudioko azoka entzutetsuak eta euskararen aldeko lasterketa herrikoiak. Orduko hartan jarritako marka gaintzeko erronka du Korrikak aurtengoan. Izan ere, jende uholde batek hartu zituen herriko kaeak. Korrikaren 23. edizioa ere erraldoia aurreikusten da Arabako azken udalerrian. Leku-koa 11:19ean sartuko da Laudioa, Gardea auzotik hain zuzen ere. Akerbeltz erromeria-ko kideek izango dute lehenengo kilometroa osatzeko ardura.

Gardea zeharkatu ostean, Latorro auzora egingo du bisita Korrikak. Bitorikako zubira jaitsi ostean, Karmen kaletik eta Zumalakarregi etorbideetik pasako da lasterketa, Dolumin Barikuko azokatik gertu-gertu. Bitorikako biribilgunera itzuli eta Aretatik abiatuko da Korrika. Hain zuzen ere, Aretako herri eragileek eramango dute lekukoa Arakaldoraino.

Dolumin Barikua

Korrika igaro arren festa-giroak ez du Laudio atzean utziko. Egun osoko egitarau oparoa antolatu dute Udalak eta herriko hainbat eragilek: azoka, herri kirolak, herri bazkaria... Musika izango da eguneko osagirik garrantzistuenak. Adin eta gustu guztientzako

egitarau musikala aurkeztu dute. Andere Abesbatzak Done Petri parrokan eskainiko du kontzertua. Erromeria gogoko duenak, aldiz, hitzordu bikoitza izango du: Iratzar erromeria Alberto Acero Plazan eta Akerbeltz erromeria Sorgin Tabernan.

Autobusa Baionara

Igandean Korrikaren amaiera jaira bertaratzeko autobusa antolatu du Udalak. Baionara hurbildu nahi duten euskaltzaleak 8:30ean abiatuko dira Laudio Institutuaren aurreko autobus geltokitik, Itzulera, aldiz, 18:30ean egingo dute Baionatik. Autobus-txartelak 16 euro balio du eta udaletxeko hirugarren solairuan eman beharko da izena.

EGUN OSOKO PLANA

03.21 Osteguna

17:30
DISKORRIKA
Aldai Plaza

03.22 Ostirala

08:30
AZOKA
Herriko Plaza
eta Aldai Plaza

11:19
KORRIKA LAUDION!
Gardea

12:00
IZALDE TRIKITIXA
Animazio musikala
Herrian zehar



12:30
XIII. HERRI KIROL TXAPELKETA
Aldai Plaza

13:00 LAUDIO
BAXOA EUSKARAZ!
Elkartasun 'photo call-a'
Gure Aukera

15:00 LAUDIO
HERRI BAZKARIA
Gure Aukera

17:00 LAUDIO
HAURRENTZAKO HERRI KIROLAK
Aldai Plaza

19:00
IDI PROBAK
Lauzaldik antolatuta
Udal probalekua

19:30
EKIN JOLEAK
Kalejira
Herrian zehar

20:00
SANTA LUZIA ABESBATZA
Done Petri parrokia

20:00
DESTINO SONORA
Alberto Acero Plaza

20:00
AKERBELTZ ERROMERIA ETA DJ MASA
Sorgin Taberna

22:30
IRATZAR ERROMERIA
Alberto Acero Plaza




02.23 Larunbata

22:00 LAUDIO
ITHAKA
Faktoria

02.24 Igandea

08:30 LAUDIO
BAIONARA JOATEKO AUTOBUSA
Laudio BHI



Laudio



Ainhize Gastaka LAUDIOKO ALKATEA

Berriz ere Korrika euskararen herria zeharkatzera doa, aurtengoan mezu argia luzatuz: hauspotu dezagun gure hizkuntza harrotasunez herriz herri.

Aurtengo edizioak Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz gazte kolektiboa euskaldunon hizkuntza eskubideen defentsan jorratzen ari den herri ekimena gertutik ezagutu dezagun gonbita luzatuko digu. Belaunaldiz belaunaldi, korrikaren lekukoaren moduan, euskaldunok gure hizkuntza eskubideen defentsari ekin diogu eta harro gaude hor gure herri izaeraren DNA bilakatu delako.

Laudion ere gure hizkuntza eskubideen defentsan egunero elikatu beharreko lana dugu aurrean. Erakunde publikoen erantzukizuna da hizkuntza eskubide horiek bermatzen direla ziurtatzea, eta hori da Laudioko Udalak erantzun behar izan duen erronka euskarak bizi izan duen oldarraldi judizialaren ondorioz.

Ausardiaz ekin behar diogu egunerokoari gure hizkuntzaren benetako normalizazioa gauzatu nahi badugu. Hori da ere Korrikak dakarren mezua eta lekukoa hartzeko prest gaude Laudioan.

Oparia da, beste hainbatetan bezala, Korrika laudioarrontzat egun seinalatu dator, eta bere zirrarak gure herriko kaleak astinduko ditu goitik behera jai giroan; zirrara bikoitza niretzat, alkate bezala Korrikari harrera egitea benetan harro sentiaraziko didalako. Zatozte, batu gaitezen laudioar guztiok korrikaren zirrara, Zeu zara Laudio, Harro Herri.

**Batu gaitezen
Korrikaren
zirrara!**



**LAUDIO
UDALA**
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

2001



Mende berri bat hasteko Korrika izan zen 12. edizioa. Mundu bat euskaraz bildu lelopean ehunka euskaltzale atera ziren Laudioko kaleetara

2003



Korrikaren 13. edizioa gauez iritsi zen Laudioan. Ez Dok Amairu omendu zuten orduko hartan, eta Mikel Laboak eta Ruper Orodorikak egin zuten kantua

2017



Korrikaren 20. edizioak Dolumin Barikuarekin egin zuen bat bete-betean. Laudioko kaleak txiki geratu ziren, milaka lagunek egin zuten bat euskararen aldeko lasterketa erraldoiarekin

Arakaldo

Bost minutuko bisita labur baina parte hartzailea egingo du Korrikak Arakaldon




Testua
Txabi Alvarado Bañares

Herri txikia izan arren, sarritan jaso du Arakaldok Korrikaren bisita, eta aurtengo edizioa ez da salbuespena izango. 12:33ak aldera sartuko da euskararen aldeko ekimen ibiltaria Aiaraldeko herri txikienean (populazioari dagokionez). Dena den, bost minutu baino ez ditu igaroko udalerrian, Arrankudiaga-Zollora salto egiteko denbora justua, hain zuzen.

Izan ere, ohiko eskemari jarraiki, oso azaleko sartu-irtena egingo du furgonetak Arakaldon, herrigunera igo gabe. Hala ere, horrek ez du arakaldoarren parte hartzea mugatuko. Urteroko ohiturari jarraiki, hainbat bizilagun bilduko dira BI-625 errepidearen aldamenean, Udalaren kilometroan (2088.a, hain zuzen), lekukoa hartzeko prest.

Gainera, arakaldoarrak ez dira bakarrik egongo seguraski. Kontuan hartu behar da kilometro hori trantsizioko eremua dela askotan: Laudio eta Aretako bizilagun ugari iristen dira horraino, eta Arrankudiaga eta Zolloko bizilagun batzuk ere animatzen dira euren txanpa toki horretan hastera.

Korrika igarota ere, euskarak goranzko joeran jarraituko du Arakaldon, edo hori ondorioztatu daiteke behintzat datuei erreparatuta: udalerriko euskaldunen kopurua %35,51 zen 1996an, eta %57,174ra arte igo zen 2021rako, EAEko garai bereko batez bestekoa baino 14 puntu gehiago. Ia euskaldunen kopurua %14,88koa zen garai horretan Aiaraldeko udalerrian, eta erdaldunak gutxienekoa ziren (%27,38). Bost urtean behin plazaratzen dira datu horiek. Datorren urtera arte itxaron beharko dugu beraz, bilakaera horren hurrengo urratsa ikusteko.



2011



Korrikaren 17. edizioan Kike Amonarrizek eta Ilazki Serranok idatzi zuten lekuko barruan gordetako mezua, eta, nola ez, Arakaldoko bizilagunek ere izan zuten mezuari eskuz esku eusteko ardura

2019



2001ean egin bezala, Korrikaren 21. edizioan ere Fermin Muguruzak osatu zuen abestia, Mad Muasel eta La Furiarekin elkarlanean: Klika Korrika. Txillardegia izan zen 2019ko edizioa omendua

2022



European igaro zuen 2022ko Korrikak Arakaldoko kilometroa. Azken edizio hartan Pirritx Porrotx eta Marimotos omendu zituen AEK-k



Lexuri Ugarte

ARABAKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA
ETA GOBERNU IREKIKO ZUZENDARIA

Korrika gara, harro!

Orro ozen bat entzuten da herriz ere.

Euskararen deiadarra da; itsasoak bustitako hondarretik hasi, biluztutako harkaitz, haitz eta harrien kontra talka egin, mahasti, pinu eta pago guztiak airean jarri eta leihatila guztietako beirak jo dituen garrasi mutu zein indartsua.

Irri, algara eta barre egiten hasi dira haur eta gazteak... kolorez jantzitako adar koloretsuenak euskararen aldarria dakarkielako euren kale eta plazetara.

Hasi dira beste behin kartoizko lekukoak egiten, euskara eskuz esku eramateko eta ahoz aho euskara praktikatu nahi dutela aldarrikatzeko.

Urru ematen ari dira/gara euskaldunak gure arnas eta go-goak. Euskararen ezagutza eta erabilera aldarrikatzeko lasterketarik zoro, maite eta jostarienak Euskal Herriko bazter guztiak bisita ditzan. Eta pausoz pauso, hitzez hitz, Euskal Herriko txoko guztiak arnagune bihurtuz momentu txiki baten baldin bada ere.

Erru handiko hizkuntza bat eskuan. Hankak korrika jartzeko modukoa. Bihotzari taupadak ematen dizkiona. Euskaldunari izaera luzatzen diona. Herria eraikitzen duena. Elkartasuna sortarazten duena. Irun eta Baiona inoizko haririk luze eta konpartituenarekin lotzen duen haria. Korrika.

Herri harri-bitxia, Korrikak dakarkiguna.

Milaka lagun, milaka nortasun diferente lotu, batu eta bil-tzeko gai den erritmo bukaezina. Hogeita hirugarrenez euskaraz bizi, maite, entzun, lan eta amets egiteko nahia aldarrikatzera datorrena. Gau edo goizez; euritan edo elurretan; eguzkia erruz jota edo tipula baten antzera hamaika geruzaz tapatuta.

Harro senti gaitzen. Euskaraz aritu, euskaraz saiatu, euskarara oraindik ere gerturatu ez edo euskara jada ahazten ari diren emakume eta gizon guztiok. Euskara dugulako ekin-tzaile, bultzatzaile eta aktibo. Euskarak beste ezerk ez gaituelako herri bezala mantenduko. Euskara egingo gaituelako paregabe, euskara egingo gaituelako euskaldun. Euskara dugulako bizipoz... bizinahi... bizi!

Aiaraldeko herritar oro: ez zalantzarik izan... Korrika aitzakia onena dugu, beste behin euskara plazaratu eta harrotasun osoz euskaldun gara eta euskaraz aritu nahi dugula aldarrikatzeko. Jantzi zapatilak, batu Korrikara eta astindu mingainak! Harro euskaraz, herria eraikinez!



Korrikari buruzko atari berezia atondu du komunikabideak Aiaraldea. eus webgunean, argazki zein bideo historikoen artxibo oparoarekin.

Martxoaren 22an, aldiz, herriz herri arituko dira kazetariak ekimenaren jarraipena egiten, etazuzeneko telebista saio berezia ere eskainiko dute.

Korrikaren jarraipen zabala, Aiaraldea Komunikabidearen eskutik



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aiaraldea Komunikabidea ere motorrak berotzen hasi da Korrikari begira. Horren adibide argiena da une honetan esku artean duzun hama-bostekari monografikoa. Baina jarraipena ez da paperezko formatura mugatuko. Atari berezia atondu du komunikabideak Aiaraldea.eus webgunean.

Bertan, ohiko informa-

zio grafikoaz gain (eskualdeko ibilbidea, kilometroak...) beste hainbat eduki ere topatu daitezke: iritzi zutabeen sortak edota argazki zein bideo historikoen artxibategia, besteak beste. 1982tik 2022ra bitartean euskararen aldeko ekimen ibiltariak eskualdean utzitako ehunka irudi ikusi eta deskargatu daitezke bertan.

Jarraipen zabala

Martxoaren 22an, aldiz, Korrikak Aiaraldean barre-

na egingo duen ibilbidearen jarraipen zabala egingo du Aiaraldea Komunikabideak, hainbat bidetatik. Kazetari zein boluntario ugari egongo dira herriz herri argazki eta bideoak egiten. Gainera, zuzeneko telebista saio berezia eskainiko du komunikabideak Laudioko kaleetatik, Dolumin Barikua izango dela baliatuta. 6:00etatik 13:30etara luzatuko da emisio hori, eta Aiaraldea.eus atarian zein sare sozialetan jarraitu ahalko da.



EUSKARAZ HARRO,
AIARALDEAZ HARRO,
HARRO, **HARRO**
FERRI

DOAKO ETXEZ ETXECO ZERBITZUA: URDUÑA, AIARA, AMURRIO...

Okm produktuak · Garaiko frutak eta barazkiak · Egunero Iza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · [f](#) [i](#) [@](#) @fruitadenda_selene

Korrikaren IBILBIDEA AIARALDEAN

ARTZINIEGA

2019. Km - 06:23
Builaka
2020. Km - 06:29
Artziniegako Txirringulari Elkarte
2021. Km - 06:36
Otsati Elkarte
2022. Km - 06:42
Artziniega Museoa - Artziniega Parrokia
2023. Km - 06:49
Eskola / Udala / Bel Edad Egoitza
2024. Km - 06:55
Artziniegako EH Bildu
2025. Km - 07:02
Ganzorrotz Mendi Taldea
2026. Km - 07:08
Garabilla Landetxea

AIARA

2027. Km - 07:15
Ibaizabal Gaztetxea
2028. Km - 07:21
AdiGrafik
2029. Km - 07:28
Amurrioko EAJ
2030. Km - 07:34
Menagaraiko Emakume Taldea
2031. Km - 07:41
Amurrioko Gazte Mugimendua / EH Bildu
2032. Km - 07:47
Mendiko Lagunak MT
2033. Km - 07:54
Arespalditzako Administrazio Batzarra
2034. Km - 08:00
Aiarako Cáceres Farmazia
2035. Km - 08:07
Izoria herria
2036. Km - 08:13
Aiaraldea Ekintzen Faktoria
2037. Km - 08:20
Etorki Kooperatiba / Txokogorri

URDUÑA

2028. Km - 07:15
Amurrio Trail / San Antonen Lagunak
2039. Km - 08:33
Oinkariak / Ezina Ekinez Egina
2040. Km - 08:39
Euritako Taldea
2041. Km - 08:46
Tologorriko Mermeladak eta Zuku
Ekologikoak
2042. Km - 08:52
LAB Aiaraldea
2043. Km - 08:59
Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua
2044. Km - 09:05
Txarlazo Mendi Taldea / Urduñako Gazte
Asanblada
2045. Km - 09:12
Mugalde / Urduñako pilotazale Elkarte

Artziniega

06:42 | 2022. Km
Artziniegako sarrera
errotanda pasata

Menagarai

07:21 | 2028. Km
Menagaraiko errepide
zaharra

Arespalditza

07:54 | 2033. Km
Arespalditzako Batzokia

Izoria

08:07 | 2035. Km
Izoriako sarrera

2046. Km - 09:18
Antzinako Andra Mari
2047. Km - 09:25
Urduñako Herri Eskola / Urduñako
Laguntza Zentroa
2048. Km - 09:31
Urduñako Udala / Orduña Hiria Museoa
2049. Km - 09:38
Erauntsi Dantza Taldea / Urduñako EH Bildu
2050. Km - 09:44
Amurrioko EH Bildu / Saratxo Herria

AMURRIO

2051. Km - 09:51
Gure Esku Dago / Nagusilan
2052. Km - 09:57
Tubacex-Aceralavako Euskaltzaleak

Arakaldo

12:33 | 2088. Km
La Isla auzoa, 5

Luiaondo

11:02 | 2062. Km
Luiaondoko sarrera

Belandia

08:26 | 2038. Km
Belandiako errota
pasata 100m

Urduña

09:25 | 2047. Km
Antigua ibilbidea, 9



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Arrankudiaga-Zollo

12:51 | 2091. Km
Arene auzoa, 1

Areta

12:22 | 2085. Km
Bitorika kalea, 2
(Gasolindegi parean)

Laudio

12:09 | 2080. Km
Virgen del Carmen, 1

Gardea

11:36 | 2068. Km
Gardea kalea, 22

Salbio

10:49 | 2060. Km
Tubos Reunidoseko sarrera

Amurrio

10:17 | 2055. Km
Amurrio-Aldai, 26

Saratxo

09:51 | 2051. Km
Saratxo parean

2053. Km – 10:04
Inauxa-Mubea Komitea
2054. Km – 10:10
Aiara Antrexatak Dantza Taldea / IES Zairaobe
2055. Km – 10:17
Aresketa Ikastola / Amaurre Ikastetxea

2056. Km – 10:23
Amurrioko Udala / Mendiko Eskola eta IGA-AMPA
2057. Km – 10:30
Izan Amurrio / Amurrioko AEK
2058. Km – 10:36
Zabaleko Ikastetxea
2059. Km – 10:43
Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik
2060. Km – 10:49
Tubos Reunidoseko LAB
2061. Km – 10:56
Ohiturak Elkarte / Etixerat

AIARA

2062. Km – 11:02
Aiarako Udala
2063. Km – 11:09
Etxaurren Ikastola
2064. Km – 11:15
Amurrio Aisia Eskaut Taldea

LAUDIO

2065. Km – 11:19
Akerbeltz
2066. Km – 11:26
Laudioko Udaletxeko Langileak / Envases Metalurgicos de Alava S.A.
2067. Km – 11:32
Avacon S.A. / Eska
2068. Km – 11:36
Kirikiño / Orbeko Etxea / Laudioko Txosna Batzordea
2069. Km – 11:39
Suziri Jai Koordinakundea
2070. Km – 11:43
Voestalpine Railway Systems JEZ
2071. Km – 11:45
OMNIA
2072. Km – 11:48
Latorroko Eskola / Latorroko Jai Batzordea
2073. Km – 11:50
Laudioko Udal Euskaltegia / Laudioko AEK
2074. Km – 11:53
Laudioko Atletismo Kluba / Alzarrate K.E. / Sugarrak S.T.
2075. Km – 11:56
Basalarrina / Sorginlarren / Ugarteko Jai Batzordea
2076. Km – 11:58
LAB Aiaraldea / Gure Esku Dago
2077. Km – 12:01
Aiala Vidirio
2078. Km – 12:03
EH Bildu Laudio
2079. Km – 12:06
La Milagrosa Ikastetxea / Laudioalde Lanbide Eskola
2080. Km – 12:09
Laudio Udala / Etixerat
2081. Km – 12:11
Palestina / Lamuza Ikastetxea
2082. Km – 12:14
Laudio BHI
2083. Km – 12:16
Laudio Ikastola
2084. Km – 12:19
Laudioko EAJ
2085. Km – 12:22
Untzueta Dantza Taldea / Herriaren Pilotazale Elkarte / Areta Trail
2086. Km – 12:25
AMPA Gallarraga / Areta Herri Eskola / Aretako K.E.
2087. Km – 12:29
Pinpili Aisialdi Taldea / Aretako Gazte Asanblada / Aretako Jai Batzordea

ARAKALDO

2088. Km – 12:33
Arakaldoko Udala

ARRANKUDIAGA ETA ZOLLO

2089. Km – 12:38
Arrankudiagako Eskola eta Guraso Elkarte
2090. Km – 12:44
Arrankudiaga-Zolloko Udala
2091. Km – 12:51
Gizarte Etxea Auzokide Elkarte
2092. Km – 12:55
Arrankudiagako Gaztetxea / Matxinkorta Mendi Kirol Kluba
2093. Km – 13:03
Javier Escalza Athletic Peña / Indarra Futbol Taldea

Arrankudiaga-Zollo

Herri txikiak handiak dira bete txikitasunean eta Arrankudiaga-Zollok argi uzten du hori euskarari dagokionez. Izan ere, eskualdean bi udalerrri baino ez daude Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean —UEMA—, bata da

Orozko eta bestea Arrankudiaga-Zollo. Hori bada euskarak presentzia daukalako alde pribatuan zein publikoan, lekukoa eramango duten eragileek erakutsiko duten moduan. Bost kilometro euskararen alde korrika egiteko eta bultzateko.

Arrankudiaga-Zollo, Aiaraldeko euskararen arnasgunea



Testua
**Aitor
Aspuru Saez**


Arrankudiaga-Zollo izango da aurtengo Korrikari agur esan-go dion udalerrria Aiaraldean. Bost kilometroko ibilbidea izango dute bi urtean behin igarotzen den egitasmoaz gozatzeko eta Arrankudiagako Eskolak eta Guraso Elkarteak, Udalak, Gizarte Etxeko Auzokide Elkarteak, Arrankudiagako Gaztetxeak, Matxinkorta Mendi Kirol Klubak, Javier Escalza Athletic Peñak eta Indarra Futbol Taldeak (azken lau horiek kilometroak partekatuta) hartuko dute ibilbidea.

Lekukoa helduko duen talde bakoitzak agerian utziko du zein garrantzitsua den euskararen sustapenean bakoitzak bere esparrutik lan egitea. Izan etxean, aisialdian, erakundeetan edota kirolean, arlo oro da ezinbestekoa euskararen erabilera han-

ditzeko eta bere presentzia normalizatzeko; eskola eta gurasoak gertuko harremanak gure hizkuntzaz harilkatzeko, Udala hitzun guztien eskubideak bermatzeko, Gizarte Etxea herriko bizitza euskaraz bultzatzeko eta Gaztetxea, mendi taldea eta kirol taldeak gehien gogoko ditugun jarduerak gure ama hizkuntzan bizitzeko.

Sinergia horiei esker herriak bete ditu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak exijitzen dituen baldintzak —biztanleriaren %70 euskalduna izatea, alegia— eta horrela, beste herri batzuen onarpenarekin batera, ehun kideren langa gainditu zuen iaz UEMAK.

Bestalde, aurreko edizioan Zollo Matrix-eko akatsa izan ostean —Korrikaren zuzeneko emisio osoa ikusgai egon zen gero, salbu Zollo—, aurtengo zollotarrak ez dira beldur izan behar, Aiaraldeak ere zuzeneko eskaini eta gordeko du eta!



Arrankudiaga-Zollo



Ane Arandia Morgaetxebarria
HIZKUNTZALARIA

Oldarraldien aurrean, herri bat Korrika

Bi urterik behin errepikatzen den zita berezia dugu Korrika, agendan kolore gorritz azpimarratzen den horietakoa. Hamaika ekintza, auzolana, herriz herri egitaraua duen horietakoa. Euskararen aldeko ekimenik erraldoiena, euskaldunon inbentario kolektiboko izarra. Asko dira partekatzen ditugun oroitzapenak, erretinan grabatuta geratu zaizkigun irudiak, sentitutako emozioak.

Zirraraz begiratu dugu gure herritik noiz igaroko den ibilbidea atera den egunean, birbidali digute hitzordua eta birbidali dugu, streaming bidez jarraitu dugu unereren batean Korrika, sareak korrikaz bete zaizkigu, eta lekukoan gordetako mezua nork idatzi duen asmatzen saiatu gara kuadrillan.

Ikusi dugu, elurtutako furgoneta bultzaka aurrera eramaten, ikusi ditugu goizaldeko ordu txikietan ilunpetan korrikalari bakartiak, ikusi ditugu hiriburuetako kaleak jendez lepo.

Sentitu dugu emozioa, hunkidura gure kilometroaren zain korrika heltzeaz zela jakitean, musika entzuten hastean, furgonetako argiak gerturatzen ikustean. Bihotza pil-pilean / tik-tak, tik-tak, tik-tok.

Hunkitu gara lekuko barruko mezua lehen aldiz plaza betean entzutean, adinduak irribarrea ahoan lekukoa hartzean.

Herri bezala bizi izan dugu, taldean, eta hori da denik eta gauzarik ederrenetarikoa, hizkuntzak batzen gaituela ikustea, euskal komunitatearen parte sentitzea.

Munduko korrikak ikusi ditugu, Tokion zein New Yorken, Argentinan eta Laponian. Ikusi dugu nola Korrikak erditu dituen ahizpa txikiak (bretorieraren alde, katalanaren alde, galizieraren alde, okzitanieraren alde, galesaren alde, gaelikoaren alde, alsazieraren alde, mapuzugun hizkuntzaren alde edo korsikeraren alde). Hizkuntza gutxietako hiztunak euren hizkuntza aldarrikatzen ikusi ditugu. Jatorri, ideia eta izaera anitzeko pertsonak biltzeko parada eskaintzen du Korrikak, eta ez da erronka makala hori lotzea.

Harro egoteko moduko ibilbidea du Korrikak. Harro egoteko modukoa da herriz herri antolatzen diren ekintzak ikustea. Euskararen aurkako sententzien, oldarraldiaren eta traba guztien aurrean gure izena eta izana harro aldarrikatzen segi dezagun, eta izan dadila suspergarria eta energia emailea, hurrengo Korrikara arte eman diezagula oztopoei aurre egiteko behar dugun energia dosia.



1980



Oñati eta Bilbo lotu zituen Korrikaren lehenengo edizioak, azaroaren 29tik abenduaren 7ra. Eskualdeko hainbat lagunek modu aktiboan parte hartu zuten egitasmoaren sorreran

1991



Gasteiz eta Baiona lotu zituen Korrikaren 7.edizioak. Arrankudiaga eta Zolloko bizilagunak izann zituen bidelagun lekukoak

2019



Korrikaren 21. edizioa apirilaren 4tik 14ra luzatu zen, euskararen alde "klika" egiteko aldarria lau haizetara zabalduz. Arrankudiagan jendetza batu zen lasterketara

Okondo

Okondo paretik igaroko da Korrika martxoaren 22an



Testua
Txabi Alvarado Bañares

2022ko edizioan Korrikak ez zuen hutsik egin Okondon. Sodu-petik sartu zen lekukoa gaueko hamarrak aldera, euripean. Herri-gunea zeharkatu eta Garateko gaina igo zuen, jarraian Laudiora pasatzeko. Aurten, aldiz, euskararen aldeko ekimena herria

bisitu gabe igaroko da Aiaral-detik, baina okondorrek hainbat aukera izango dituzte furgonetaren atzetik aritzeko. Izan ere, Okondoko mugetan sartuko ez den arren, oso gertutik igaroko da martxoaren 22an. Goiztiarrenek Sodupera joateko aukera izango dute, bertatik igaroko baita furgoneta 5:11n, Okondoko mugatik gertu. Eta, bestela ere, sei ordu beranduago Laudiora jaitsi

ahalko dira bizilagunak, 11:21 aldera igaroko baita Korrika bertatik, eskualde ia osoa zeharkatu ostean. Modu batean edo bestean, okondoarrak motorrak berotuta egongo dira ordurako. Hamabostekari hau plazaratzen denerako igarota egongo da Okondoko Korrika Txikia (martxoaren 15rako programatutakoa), Okondoko Eskolak eta bertako guraso elkar-teak elkarrekin garatutakoa.

2003



Herri bat geroa lantzen lemapean Maule eta Iurñea lotu zituen 13. Korrikak. Errepidean Okondoko euskaltzaleak izan zituen bidelagun

2013



Eman euskara elkarri lelopean euskara ikasten ari ziren ikasleak omendu nahi izan zituen 18. Korrikak. Okondotik gauetz igaro bazen ere, dozenaka lagun izan ziren lasterketara batu zirenak



Eneritz Alonso
OKONDOKO ALKATEORDEA

Okondoko Korrikaren edizio berri bakoitza une zirrargarria da gure historia partekatuan, euskari eskaini diogun dedikazio nekaezina islatzen duen mugarria. Kaleak kemenez eta gogo biziz beteta ikustean, adin eta jatorri guztietako pertsonak helburu bakar batekin elkartuta, gure bizilagunek euskal hizkuntza eta kulturarekin duten errotze sakona agerian geratzen da. Ekitaldi hau ez da lasterketa bat bakarrik, gure nortasun kolektiboaren sinbolo boteretsua baizik, euskarak nor garen osoki gogorarazteko.

Okondoko Korrika bertako ekitaldi bat baino askoz gehiago da; euskaldun guztientzako inspirazio-itsasargia da, konpromiso eta grinak aldaketa eta erronka garaian ere euskararen garra nola elikatu dezaketen erakusten duen adibide bizia. Lasterketa honetan emandako urrats bakoitza erresistentzia kultureko ekintza da, gure antzinako hizkuntza zaintzeko eta sustatzeko gure determinazioaren baieztapen ausart bat.

Korrikaren bidez, mezu argi eta sendoa bidaltzen diogu munduari: euskarak bizirik irauteaz gain, aurrera egingo du. Batasun-oihu bat da, indar kolektiboarena, gure hizkuntzaren eta nortasunaren defentsan. Izkina bakoitzean, kilometro bakoitzean, gure aniztasuna ez ezik, euskararen inguruan dugun batasuna ere ospatzen dugu. Korrika Okondon gure herentziaren testamentu bizia da, euskararen edertasunari eta aberastasunari egiten zaion omenaldi bizia.

Korrikaren bidez, euskara Okondotik mundura bultzatzen dugu.



OKONDO
UDALA - AYUNTAMIENTO

Korrikaren bisitarik gabe ere, “harro herri” da Orozko



Testua
Txabi Alvarado Bañares

2017ko apirilean bisitatu zuen Korrikak azkeneko aldiz Orozko. Orduz geroztik ez da berriro igaro, baina udalerrriak urratsak ematen jarraitu du euskararen normalizazioaren esparruan. Hain zuzen, 2017aren amaieran eman zuen pauso esanguratsue-

netako bat: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu zen.

Hala ere, erronka handiak ditu udalerrriak aurrean, euskararen erabileraren datuak ez dira horren baikorrak. Ia 34 puntuko jaitsiera egon zen herriko euskararen kale erabileran 2011tik 2021ra. Neurketa horren arabera, euskararen kale erabilera %23,2koa da Orozkon, hamar urte lehenago %57,2koa

zen bitartean. Baina Orozko bizilagunak badira horretaz kontziente, eta hainbat ekimen jarri dituzte abian azken urteetan egoerari buelta emateko. Horren adibide da iaz eraturako guraso euskaltzaleen batzordea, helburu duena euskara hutsen familian aritzeko jarduerak antolatzea.

Korrikaren bisita fisikorik gabe ere, euskararen lekukoari tinko eutsi diote Orozkon.




Aitor Iza
**OROZKOKO
ALKATEA**

Datorrigun Korrika honek, besteek eduki duten mugimendu transbertsal berbera izan behar du. Hori izan da euskaldunon gakoetako bat hainbeste mendeetan zehar bizirik iraun ahal izateko. Kooperazio lanetan apartak gara, beti gure ongizatea bestearen ongizatearekin etorri da. Kate luze bat gara, gogorra eta apurtezina. Indibidualismoa alde batera uzten dugu herri honek duen altxorretariko bat kolokan dagoenean. Kasu honetan, gure hizkuntza maitearen defentsan batera atera ginen eta aterako gara, euskara gure nortasunean atxikiturik dagoen ezaugarri apurtezin bat delako.

Herriaren oihartzuna zazpi lurraldeetan zehar entzungo da. Korrika honek, nahiz eta hanka desberdinez osaturik egon, denok zapata barberak daramatzagu. Hori da funtsean izan behar dugun sentimendua. Denok aldarririk berbera defendatzen dugu, edozein herritan, edozein kilometrotan eta edozein hiriburutan. Pertsona desberdinak, zapata baerberak.

Ezin dugu jakin nolakoa izango den gure etorkizuna, gure benetako borroka oraina da. Mila borroka txikiz osatutako guda honetan, euskaldunok erakutsi dugu beti gure aitaren etxea defendatzeko prestaturik gaudela. Borroka txiki bakoitza igaro egin dugu, gure izaerari, senari eta nortasunari uko egin barik. Bi aukera izan ditugu aintzinatik, mozorrotutako bake batean bizi edo gure egia denarengatik borrokotu. Momentuz, nahiz eta guztien gustukoak ez garen, dugunarekin zoriontsuak gara.

**Geldiezinak
garelako!**



OROZKOKO
UDALA

Korrikaren zain

Korrikaren 23. edizioa Aiaraldeara iritsi bitartean, edizio zaharretako argazkiei begirada eskaintzeko eta lasterketak sortzen duen zirraren inguruan hausnartzeko tartea hartu dugu; asko izan baitira eskualdena utzitako une gogoangarriak.

Iraganera begira, etorkizuna eraikitzen

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Martxoaren 18an eman zituen lehenengo urrtasak Korrikaren lekukoak Irungo kaleetan. Astebeteko tartea beharko du lasterketak Aiaraldeako errepideak zapaltzeko. Korrikaren zain gauden honetan, azken 23 edizioek Aiaraldean

utzitako arrastoari eskaini diogu begirada. Hamai-ka irudi eta une gogoangarri utzi ditu AEKren ekimenak eskualdean, eta, hortik abiatuta, hamaika dira Korrikaren eta euskararen inguruko gogoetak.

Orri hauetan bildu ditugu euskararen aldeko lasterketak gurean utzitako hainbat irudi. Horre-

kin batera, eskualdeko herritar desberdinen Korrikaren, euskararen eta gure herriaren inguruko hausnarketak ere.

Aiaraldea Komunikabideko kideok atal berezia atondu dugu webgunean, eta bertan bildu ditugu argazki eta bideo zaharrak eta iritzi zutabeak. Martxoaren 22ra arte, itxaronaldi on!



Korrikaren zain



Maider Gotxi
FISIOTERAPEUTA

Jarrai dezagun Korrikan

Euskara, elkarlana, natura, auzolana, kultura, herrigintza, herrimina. Xarmaz betetakoeta gure Korrikaren adierazgarri handienak diren hitzak. Korrikak batu, lotu eta argiztatu egiten ditu ibilbidean zehar igarotzen dituen herri txiki zein handiak. Txikitatik egin dugu korrika *Tipi-tapa Tipi-Tapa* lelopearen erritmoan, martxoko data berezi honen zain, eskoletan egindako petoak koloreztatzen.

Urteak joan eta igaro dira, eta eskola orduetan proposatutako jarduera gure ohi-turaren parte bilakatu da. Gogoz itxaroten dugu Korrikaren ibilbidea jakitera; gogoz ere, bere orduetgia gure heldutasun bizitzarekin bat egiten duen edo ez jakitera. Baina ezinbestekoa da guretzat, gure herri txiki horretan korrika egiteko aukera izango dugun edo ez jakitea. Indibidualismoa bandera moduan duen mundu berri honetan, Korrikak euskara ardatz moduan izanda, batera eraikitzearen aldeko proposamen bat da. Gure herrian bertan; gosaria, afaria edo txokolatada prestatzen ez dutenek, kotxea

hartu eta furgonetaren atzetik dabilta korrika egiten duten herriko pertsona guztiak pixkanaka batuz, guzti guztiak jaso arte, denek herrira itzultzeko aukera izan dezaten. Hori da guretzat Korrika, 5-6 minutuetarako gure herria hankaz gora jarri, herrikide ezberdinekin bat egin, hauek animatu, eta alboan dagoenarekin batera euskararen aldeko leloak abestea sortarazten duena.

Kanpotik beraz, ez da erraz ulertu daitekeen afera bat, azkenean Korrika nahiz eta talde lanean bermatu, oso pertsonala da. Bakoitzak barrutik eramaten baititu bi urtero antolatzen den ekitaldiak sortarazi egiten dizkion sentimenduak. Duela pare bat urte sare sozialetan topatu nuen esaldi bat da nire kasuan Korrikaren esentzia hobekien plazaratzen duena "Egun hauetan hunkigarria da pentsatzea edozein ordutan, nonbaiten, zoro zoragarri batzuk euskararen alde korrika dabiltzala jakitea". Eta hori da azken finean Korrikaren funtsa, euskararekin bat korrika egitea, hortaz; jarrai dezagun korrikan.



**Aiaraldea bizi, sentitu,
gozatu eta dastatu.**



www.cuadrilladeayala.eus

[f](#) [@aiarakokuadrilla](#)

Korrikaren zain



Asier Amondo

AEK

KORRIKA badator...

Badator, hemen dago! Egun gutxi barru, martxoaren 14an, 23. KORRIKA abiatuko da Irundik eta 2.700 lekuko aldaketaren ostean, gehiago izango direla zalantzarik ez, Baionara helduko da martxoaren 24an. 23. KORRIKA honek ere Euskal Herria astinduko du hamar egun eta hamaika gaue-tan zehar, Euskal Herriko bazter guztietara helduko da eguzkia, elurra, hotza eta beroa gaindituz.

KORRIKA, KORRIKA da ez dago parekorik munduan, hizkuntz txikien alde egiten den lasterketa-rik erraldoiena da eta hizkuntz txiki askok KORRIKAren eredia hartu dute haien hizkuntza haus-potzeko.

Eta nire aldetik zer esan! Ohore bat izan da urte askotan KORRIKAren koordinatzailea izatea eta ekimen kolektibo honen bizipena barru-barrutik izatea, taldean egindako lana, auzolanean, herri-rik herri garatu dena, horixe baita KORRIKA elkarlan erraldoia.

Orain, KORRIKA emozio berarekin eta ardura berarekin bizi dut, nahiz eta bere tripa guztiak ezagutu ez. Aleka, gainontzeko AEKideen moduan gauzak ezagutzen joan naiz, kanta, ibilbidea, mezua, leloa... Aurten KORRIKA Baionan amaitu arte ez dut jakingo Juan Gorritiren lekukoaren bar-ruan joango den mezuaren egilea zein den, baina egia esan sorpresa hori amaiera arte gordetzea merezi du horrek KORRIKari "suspensea" ematen baitio azken unera arte.

23. KORRIKA eskualdean arituko naiz, aspaldian bezala, Laudioko eragileekin harremanak izaten 23. KORRIKA honen mezuaren nondik norakoa azaltzen, ibilbidea zehazten, KORRIKA Kulturaleko ekimenak antolatzen,...

KORRIKA lasterketa baino gehiago da ekimen kolektiboa, partehartzailea, inklusiboa eta batez ere EUSKARAREN aldeko ekimenik erraldoiena.

Zelan ez sentitu harro horrelako ekimen baten partaide izanik? Politena da denok izan gaitzkeela ekimen horren partaide, nork beretik bere alea jarriz eta, guk guztiok, harrotasunez adieraziz, martxan dagoen herri bat aldarrikatuz, euskaraz bizi nahi duen herria garelako ohikatuz, hamar egu-netan zehar eta oihu horiek hel daitezela euskararen kontrako erabakiak hartzen dituzten oldarkor horiengana.

HARRO HERRI dio 23. KORRIKAK, ez dugu ahaztu behar geure KORRIKA hizkuntzaren aldeko aldarria dela, ez dugu ahaztu behar geure burua baieztatzeko unea ere badela, egoera aldakor eta oldarkor honetan garaia da aho betez oihukatzeke euskaraz bizi nahi dugula. Euskarak aurrera egingo badu, herriaren erabakitunagatik izango da, eta KORRIKAK aukera bikaina ematen digu herripultsua aktibatzeke, aldarri tinko bat egiteke, pauso gehiago eman ditzaten, herri gogoari erantzunez.

Era berean, KORRIKAK batzen gaitu, komunitate baten parte sentiarazten gaitu, ingurua mugitzen du, jende gehiago euskarara ekarrira. Beraz, badakigu martxoaren 14tik 24ra HARRO HERRI! Herri honen harrotasuna aldarrika dezagun eta martxoaren 25etik aurrera harrotasun hori eta herri nahi hori geure hizkuntza sustatuz, Hizkuntz Politikan aldaketak emanez, euskara ikasiz, euska-raren erabileran urratsak emanez...

Harrotasunetik eta Herritartasunetik GORA 23. KORRIKA!

CHEF BAT BEHAR DUGU!

**EKO
NO-
MA
TUA**

**ELKARRIA
FAK
TO-
RIA**

Kozinatzea maite baduzu, eta zure sormenari bide eman nahi badiozu, batu Faktoriako lantaldetara!

Filosofia agroekologikoarekin astelehenetik ostiralera lanaldi erdian arituko den sukaldari bila gaude!

Bidali zure curriculum eta aurkezpen gutuna martxoak 17 baino lehen lanpoltsa@aiaraldea.eus helbidera.
Informazio gehiago: www.labur.eus/chefbila



Korrikaren zain



Uzta Largetxa
MEDIKUA

Costa Rican ere euskararen alde!

Urtero Laudioar ugari biltzen gara Dolumin Barikuko azokaren inguruan; lagunekin elkartzen gara, taloak jaten ditugu, NKTren kantu-jiretan abesten dugu eta, noizbehinka, onartu beharra dut gaztetxeko pareten artean gauak luzatu izan zaizkigula. Gogoan dut, aldiz, 2018. urtekoa berezia izan zela, Korrika igaro baitzen jendez lepo zegoen erdigunetik. Eguraldi eguzkitsu batek lagunduta, pertsona andana batu ginen tarte batez izerditu eta gure hizkuntza aldarrikatzeke, Arakaldora iristerako arnasestuak nagusi baziren ere. Eguna borobiltzeko aukera paregabea.

Euskal Herriko herri eta hiriak blai egingo dituen ibai harrotu baten gisan, Irunen jaio eta Baionan itsasoratuko da aurten 23. KORRIKA. Hala, berriro ere, aldarriz zipriztinduko du gure eskualdea martxoaren 22an, Artziniegatik hasi eta Arrankudiagatik Arratiarantz ihes egingo duen arte. Eta, duela 6 urte lez, Dolumin Barikuarekin bat egingo du Laudion. Oraingo honetan, ordea, penaz, urrutitik bizi beharko dut eguna. Hori bai, dudarik ez izan, Korrikako petoak Costa Rica zeharkatuko du bertako lagunez inguratuta.

Beraz, hankak eta eztarriak berotzen hasteko ueña iritsi da, birrikak airez bete eta paparra harro puztekoa. Espero dut bertan arituko zaretenak entrenatzen ibili izana, kilometroak egin ondoren ere, antza, ez baita erraza izaten pankartaren atzetik eustea.

Gora KORRIKA! Gora euskara!



bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

945 712 822 bertoko.eus



Korrikaren zain



KULTUR FAKTORIA

KONTZERTUAK

Sarrerak:

Faktoriako bazkideak 8€
Ez-bazkideak 10€

Martxoak 23,
larunbata

22:00etan

Ate irekiera
21:30



ITHAKA

Orioko zein Zarautzeko Ithaka taldeak "Biluzten" lana aurkeztuko du Faktorian. Gipuzkoako taldea alt-rock, stoner, post-punk eta post-rock generoak lantzen ditu, musikarekin beraien nortasuna propio bat proposatuta.

F

Kantinan
edaria!



FAK-
TORIA

© Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio (Araba)
☎ 633 517 383 ○ kultura@aiaraldea.eus
○ www.faktoria.eus



#BizitzekoFaktoria
#AmestekoFaktoria



Korrikaren zain



Galder Barbado
EUSKAL PRESO POLITIKOIA

Herriaz Harro

Azkenengo Korrikan Amurrioko kaleetatik Alaitzen argazkiarekin batera lekukoa eramateko aukera izan nuen. Aurtan, ordea, Langraitz aldetik pasako denean biok toki berean egongo gara, Zaballako espetxean, furgonetako oihuak honaino helduko ote direnaren esperoan. Gure herriak, gure hizkuntzak eta gure pentsatzeko erak ez dute kabidarik Espainiar eta Frantziar estatuetan, horregatik Euskal Herria ukatzen, Euskararen aurka oldartzen eta euskal militanteak espetxean zein deserrian mantentzen jarraitzen dute. Euskararen aurkako oldarraldi bortitzenetan, Euskal Herriaren kontrako pasarte ilunenetan eta euskal militanteei aplikatutako zigor eta praktika krudelenetan ere, gure herria beti izan dagai askatasunaren eta etorkizun hobe eta justu baten argi izpia mantendu eta zabaltzeko.

Harro egoteko Herria da gurea, bai, eta gure atzetik etorriko direnak hori bera sinetsi eta bizi dezaten ardura gutako bakoitzaren gain dago, guk bizitzen eta sentitzen dugun harrotasunaren ardura gure aurrekoena izan zen bezala. Gure egunerokotasunean burututako ekintzek, hartzen ditugun erabaki txiki eta ez hain txiekiek, sortzen ditugun mugimendu zein ekimenek, gure jarrerek eta sortzen goazen aliantza eta konplizitateek gure historiaren liburuan kapitulu berriak idazten doaz egunero, nahiz eta askotan, bizi erritmo azkarregi honetan, konturatu ere ez garen egiten.

Tipi-tapa tipi-tapa Korrika beti helmugara heltzen da eta horretarako egiten dugun kilometro bakoitza ezinbestekoa da; ordu txikietan jende gutxiarekin egiten direnak nahiz jendez lepo dauden errepideetan erritmo motelagoan egiten direnak ere. Kilometro batzuk euripean izaten dira, beste batzuk elurretan inkulso, asko dira ilargipean eta eguzkiak gogoz berotzen dituenak ere, baina Korrika beti aurrera doa, atzean bakarrik inor utzi gabe, irribarrea inoiz galdu gabe. Jarrai dezagun askatasunaren helmugara bidean tipi-tapa, Korrika egiten, atzean inor utzi gabe, gure hizkuntzak, gure herriak eta gure preso, iheslari eta deportatu guztiak askatasuna behar eta merezi dutelako berandu baino lehen.

Herriaz Harro.

zaraobe
institutua

**HARRO
ERRI**
EGUNERO EUSKARAZ!

zaraobe.net   @ieszaraobehi



Aresketa Ikastola
maiatzak 22 / 2055 km / 10:17

Ez ezazu euskararen alde korrika egin!
EGIZU korrika EUSKARAZ!

NIK EUSKARAK GUK 365 EGUN ZUK?

Korrikaren zain

Hamaika taldek eta artistek sortu dute kanta Korrikarako, baina bakoitzak badauka talde kuttuna horretarako. Aiaraldeko zenbait musikari eta musika zalaren iritziak jaso ditugu gaiari lotuta. Eta zuk? Zer iritzi duzu?

Zein talde edo artista faltan bota duzu Korrikaren abestietan?



Beñat Bilbao
DANTZETAN JARRAI

“Nire gustuko talde askok egin dute abestia eta, hasieran kanta lasaiak egiten baziren ere, gero animatuagoak egin zituzten trikitilaren laguntzaz. Edonola ere, uste 90ko hamarkadan Kojon Prieto y los Guajalotes aukera ona izan ahal zela. Egia da taldeak gazteleraz abesten zuela gehienbat, baina abeslariak euskaraz ikasi zuen eta ahal zuenean elkarrizketak euskaraz egiten zituela. AEKrentzako eta Nafarroa Oinezarako abestiak sortu zituzten talde gisa eta uste dut euskaratik hurbil zeudela. Rantxerak ez dira egin Korrikan. Bestalde, 2000. urtetik aurrera, uste dut rapa euskaraz hasi zela gehiago entzuten eta nik Selekhita Kolektiboa nuen gogoko. Nire aburuz, polita izan zitekeen eurek abesti bat edo kolaborazioa egin izana”



Itziar Duoandikoetxea
MUSIKA IRAKASLEA

“Maite Idirin Solatxiri omenaldia egiten gabiltza Ugaon. Eta pentsatu dut, zergaitik ez bera? Euskaltzale, abertzale, feminista... lan handia eginda euskararen alde, euskal kanta zaletasuna bultzatuz... Nahiz eta urte asko Parisen egon, euskal izaera beti eroan du”



Gorka Chamorro
SIROKA

“Nik Goxua'n Salsa hautatuko nituzte, zerbait freskoa”



Nerea Iglesias
YOU YOU IRRINTZI

“Nik Sorotan Beleren alde egingo nuke”



Josu Amundarain
OROZKO ROCK

“Ez dut nire burua aditizat hartzen, baina galdetzen badidazu, gustatuko litzaidake Korrikaren abestia egiten duen taldea ez izatea kontsokratua, hau da, 25 urteko ibilbidearekin.

Adibidez, gaur egungo talde berrien artean Tatzers oso ondo egongo litzateke”



Irati Mendiguren
BURBUILAK

“Nire ustez aproposak izango lirateke Dupla bi arrazoiengatik: arabarrak dira eta musika garaikidea egiten dute”



ARGAZKIAK: Aiaraldea.eus, Txomin Egiluz, Aiarako AEK, Laudioko AEK, Audio Ikastola, Alfredo Ramirez, Jon Catalan

Herriko plaza



Malen eta Olatz

Zorionak neskak!! Baserria eta pinuak badauzkazue, gaurtik aurrera patrola lortzea zuen esku!

Zuen lehengusina
gogokoena



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Apirilaren 10ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

	2					8		
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ERRAZA

	3		7					6	
4						9		8	3
	7			2	3				5
6			4						
	5					2	6		7
		4	3			5			
	6		8			4	5	3	
		3	2	5					
5	4			3	7				9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



**Korrikaren
produktu sorta
zozkatuko du
komunikabideak**

Korrikaren produktu sorta zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak
Parte hartzeko www.aiaraldea.eus Zozketaren data: Martxoak 20, 15:00etan.

**QUICK PC
REPAIR**



Informatika argi eta erraz

**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA


BADATOR KORRIKA

Idazlea: Miren Amuriza

Ilustratzailea: Julen Tokero

Argitaletxea: Elkar, Katxiporreta

Pirritx Porrotx eta Marimototsen ipuina da aurkezten duguna. Hurrekin Korrika lantzeko ipuin interesgarria da. Lurrarri urtero datorkio udaberria, Korrikari aldiz bi urterik behin.



CUBE ARTS

Idazlea: Deborah Ellis

Itzultzailea: Tomomi Usuj

Argitaletxea: Kabe

Adina: 8 urtetatik gora



Euskaraz editatutako *manga* komikia da. Hiru liburuko bilduma da. Pertsonaia Minecraft jokoan, jokatzeko ari den bitartean jokoak mentuan sartzen da eta ezin dute bukatu. Jokoan zehar biziraun beharko du.

KORRIKA LEKUKOA



MATERIALA:

- Sukaldeko paeraren tutua (luzea izatea)
- Tenperak edo margoak
- Puxikak
- Koloretako zinta itsaskorra
- Artilea edo zeta papera
- Orri bat (mezua)
- Artaziak

AZALPENA:

Korrika badator eta etxean Korrika lantzeko ekimen polit bat ekartzen dizuegu. Familian euskaraz gozatzeko aukera

emango digun ekimena da azalduko duguna. Korrikaren hasieran lekukoan mezua sartzen da eta Euskal Herri guztitik bidaiatu egiten du.

Egiten dugun proposamena gure etxeko euskararen aldeko mezua idaztea izango da. Familian elkartu eta bakoitzak euskararekiko hartuko duen konpromisoa idatzi edo marraztu beharko du orri batean. Saiatu konpromisoa errealia izatea, egingarria. Familiako kide bakoitzak berea egingo du eta ez dio beste kideei erakutziko.

1. Hartu tutua eta dekoratu, margotu nahi den bezala edo koloretako zinta itsaskorarekin apaindu.
2. Puxikak erditik moztu.
3. Mezuak tutuan sartu eta erditik moztutako puxikekin puntak estali. Sendotasuna hartzeko zinta itsaskorarekin puxika eta tutua itsasi.
4. Artilearekin edo zeta paperarekin tirak egin eta tutuari itsasi.

Behin eskulana prest dugula, gure konpromisoak lau haizetara zabalduko ditugu. Gure familian egiten ditugun planetara eramanez, edo etxean gure ikusgarri batean jarri. Lekukoa ikusteak gogora ekarriko digu euskararekiko hartutako konpromisoak. Lekukoa gure aisialdiko momentuetan, familian gauden uneetan eramaten badugu, euskara momentu gozagarriekin lortuko digu familian.

Zuek erabakitzen duzuen egunean, urte bukaeran izan daiteke, gabonetan, tutua ireki eta familian konpromisoak irakurri. Irakurri ondoren, eta bakoitzak egin duena epaitu gabe, erritual bat egin daiteke mezuek indarra hartzeko. Horren ostean, mezuek sutan erre, konpromisoek indarra hartzeko eta berriak eraikitzeko.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Korrika

Tipi-tapa, badator KORRIKA! Badator, euskara Euskal Herriko bazter guztietara hedatzen duen mobilizazio jendetsua. Euskal Herriko jendea eta lurraldeak kausa komun baten alde batzen dituen ekimena. Herriz herri, euskararen aldeko mezua eskuz esku pasatzen da, eragile eta norbanako ezberdinek indarra emanez mezu horri eta jende ugariaren ilusioa amaierara eramanez.

Korrika, eta euskararen aldeko bestelako ekimenak, gure hurrei euskararen hazi txikia bihotzean txertatzeko baliatu behar ditugu. Korrikak, euskara erdigunera ekartzen du eta gogora ekartzen digu euskara hizkuntza bizia dela, Euskal Herriar askoren bihotzetan daramaguna.

Bihotzetik ahora salto egin behar du, bizitzeko tresna bat izan behar du eta horretarako ez dira nahikoa euskararen aldeko ekimenak.

Alde batetik, familiak nukleoko hizkuntza ohiturak txertatu egin behar da euskara. Familiako haurrak hurrekin eta helduekin euskaraz aritu behar dira. Hori bezain garrantzitsua da eta batzuetan garrantzitsuagoa helduek helduekin eta helduak hurrekin ere euskaraz egitea. Helduok konturatu behar dugu eredu garena haurrentzako, eta ezinezkoa izango dela hurrek, euskara erabilgarria den hizkuntza dela ikustea, baldin eta etxeko helduek egiten ez badute. Gainera, etxeko hizkuntza ohituretan euskara txertatua badago, hurrek erraztasuna izango dute euskaraz aritzeko eta gehiagotan erabiliko dute. Beraz, ez da bakarrik hurrei euskaraz zuzentzea, baizik eta etxeko hizkuntza hegemonikoa euskara izatea.

Bestetik, aisialdia zer nolako hizkuntzatan egiten den garrantzia handia du. Haurrak nekez erabiliko du euskara, bere gozatzeko momentuetan presentziarik ez badu. Euskarak esperientzia gozagarri eta positiboak behar ditu. Hizkuntza eskolatik aldendu egin behar da eta aisialdian guztiz txertatu. Hurrek aisialdian euskaraz gozatzeko aukera baldin badute, gehiagotan erabiliko dute.


Korrika badator eta pasatuko da, euskararen aldeko beste hamaika ekimen pasatuko diren bezala, helduon ardura da haurraren bihotzean hazia landatzea eta mimoz elikatzea. Ernaltzean bihotzetik ahora salto egiteko.

Handitik txikira

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Zein arraio!




Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena
- Ipurdirik ez du agerian
- Ez du eztenik, ezta tronparik ere
- Ezin du hegan egin
- Sei zango ditu
- Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten
- Oso bista aparta dela esan liteke.



itzala

Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

Oinutsik Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?



SOLUZIOAK



Korrika munduan



Korrikaren lekukoa mundu zabalera atera dute, Aiaraldeko diasporaren laguntzari esker

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Bi urteren ostean, euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Euskal Herriko kaleak hartuko ditu berriro aurki. Korrikaren 23. edizioak Irun izango du abiapuntu ostegun honetan, eta bi astez gelditu gabe aritu ostean Baionara iritsiko da dato-

rren martxoaren 24an. Korrika ostegunean abiatuko den arren, motorrak aspaldi daude berotuta. Ugariak dira AEK-ko kideek, euskalgintzako beste hamaika eragilerekin batera, antolatutako ekimenak.

Euskal diasporak ere ez dio hutsik egin hitzorduari, eta Korrikaren lekukoa eraman dute munduko hainbat txokotara.

Parisen edota Bruselan Korrikaren 23. edizioarekin bat egin dute

Paris eta Brusela

Azken astean, besteak beste, Parisen eta Bruselan egin dute bat Korrikaren 23. edizioarekin, eta Aiaraldeko zenbait lagunek parte hartu dute ekimen horietan.

Parisen Lorea Ibañez amurriarra izan da furgoneta gainetik Frantziako hiriburuko kaleetan barrena euskararen aldeko

korrikalariak animatzeko ardurar izan duena. Ibañezek urteak eman ditu Parisen bizitzen eta modu aktiboan parte hartu du bertako euskal etxean. Aurten, Korrika ospatzeko bueltatu da.


Bruselan ere euskararen alde korrika atera da bertako euskal komunitatea, Allende Solaun eta Aimar Sanjurjo laudioarrak tartean.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte · **Tirada:** 10.000 ale · **Maiztasuna:** Hamabostekaria · **Lege gordailua:** BI-1230-2013 · **Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraldea.eus/ agenda@aiaraldea.eus/ erredakzioa@aiaraldea.eus · **Publizitatea:** publizitatea@aiaraldea.eus · **Tifnoa:** 688 62 53 94 · **Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400 · **Telefonoak:** 94 656 85 54/ 688 62 59 00

Web-gunea: www.aiaraldea.eus · **ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunatze Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**